

Donostian, 2017ko apirilaren 24an

IDAZKARI NAGUSIARI

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUARI (EELZ) BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN Batzordean Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua dela-eta bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, hil honetan, interpelazioa egin genion Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkari Aitziber San Romani, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuarekin lotutako zenbait gairi buruz. Gai horien artean honako hau zegoen: zerbitzu horri buruzko araudiaren aldaketa eta zerbitzu horren lizitazio berria, orain arte zerbitzua eman duen enpresak jakinarazi baitu ez duela egingo kontratua luzatzeko eskaerarik.

Etxez Etxeko Zerbitzuaren araudia dela eta, San Romanek jakinarazi zuen Idazkaritza Juridikoa araudi horren zirriborroa aztertzen ari dela, eta behin onespena jasotakoan, beste agente batzuek begiratuko zutela, besteak beste une honetan zerbitzua ematen duen enpresako enpresa batzordeak. Era berean, erantzun zuen araudi aldaketaren onarpeneko izapideak egitean jasoko genuela udal taldeek aldaketen berri, baina ez zuela inolako eragozpenik guri zirriborroa helarazteko. Zinegotzi ordezkariak ez zuen azaldu ea zirriborro berria idatzi aurretik kontrastatu al zen nolabait, hori baita ohikoa.

EEZLren lizitazio berriari dagokionez, San Romanek azaldu zuen horretarako baldintza agiria idazteko lanean zebiltzala. Hala ere, kezka sortzen digu enpresak kontratuaren luzapena ez eskatzeak. Are gehiago, kontuan hartuta EELZ finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak duten hitzarmenaren arabera, lanegunetarako gehieneko prezioa (18,87 €/ordu) txikiagoa dela orain indarrean dagoen kontratuan ezarritakoa baino (19,82 €/ordu), eta, beraz, espero izatekoa

dela esleipen berrian gaur egungo prezioetik bera ibiltzea; arrazoi horrek bultzatuko zuen, agian, oraingo enpresa kontratuaren luzapena ez eskatzera eta lan-hitzarmen berria ez negoziatzera bertako ordezkariak sindikalarekin.

Hori guztia dela eta, Udal Gobernuari eskatzen diogu azter dezala ea juridikoki eta ekonomikoki bideragarria den Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua zuzenean ematea, bi arrazoi oinarri hartuta: batetik, zerbitzu publiko hau ezinbestekoa delako pertsona askok beren etxeetan bizitzen jarraitu ahal izan dezaten; eta bestetik, zerbitzu hori ematen duten pertsonen (gehienak emakumeak) lan baldintzak bermatzeko.

Hori dela eta, hau da aurkezten dugun

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio aurkez dezala, bi hilabeteko epean, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua zuzenean emateari buruzko azterketa bat, aukera horren baliagarritasun ekonomikoa, juridikoa, teknikoa eta soziala aztertuta.
2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio jakinaraz diezaiela bai udal taldeei eta bai Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuarekin lotutako gainerako agente eta kolektiboek zertan aldatuko den EELZri buruzko udal araudia.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.